

Arabako Errioxan, uzta berria

EH Bilduk Oionen eta Samaniegon irabazi du
• EAJk Guardia eta Bastidako alkateak lor
ditzake, eta PPK Mañuetari eutsiko dio soilik

Eduene Begiristain

Udal hauteskundeak uzta berria utzi dute Arabako Errioxan. Batzuek espero ez zuten uzta oparoa eskuratu dute. Beste batzuei, aldiz, ozipindu egin zale. EH Bilduk eta EAJk topa egiteko motibo bat baino gehiago dute kuadrillan. Garai batean PPren gotorleku izan zen eskualdean garaipen historikoak erdietsi dituzte bi alderdiek. EH Bildu gehien bozkatutako alderdia izan da Oionen eta Samaniegon. EAJk, berriz, erabateko nagusitasunez irabazi du Elvillarren eta Kripanen, garaipen historikoa lortu du Navaridasen eta PPri alkatezako kenduko dio, eta Ekoran, Lantziegon, Villabuanen eta Moredan ere alkateak mantenduko bide ditu. Txanponaren ifrentzuan dago PP: Navaridaseko alkatezako galduta, bakarrrik Mañuetako aginte makilari eusteko moduan dago.

Oionen, aise nagusitu da EH Bildu, eta historian lehen aldiz boto gehien lortu duen indarra izan da. Gorakada nabarmena

EP-IUk ezkerreko ituna babestuko du Gasteizen

Elkarrekin Podemos-IUk ez du babestuko EAJren eta PSE-EEren arteko akordio-rik Rocio Viterori Gasteizko alkatezako kantzeko. Garbiñe Ruiz EP-IUren Gasteizko alkategaiak atzo iragarri zuen ezkerreko itunen aldeko «apustu sendoa» egingo dutela Gasteizen eta Araban, hau da, EH Bildu, EP-IU eta PSEren artekoa. Viterok, berriz, atzo esan zuen harremanetan jarri dela EAJrekin, PSErekin eta EP-IUrekin akordioaren bat lortzeko, eta EH Bilduri dago kiola «aldaketaren gidaritza» hartzea.

izan du: bost zinegotzi eskuratu ditu, 2019an baino hiru gehiago. Eduardo Terroba jeltzaleak politikatik erretiroa hartu ostean, Jose Antonio Tarragonak zuen alkate kargua berritzeko erronka, baina jeltzaleak zinegotzi bat galdu dute eta hirurekin geratu. Aginte makila eskura dezake EH Bilduk, baldin eta PPK (2), PSEK (1) eta EAJk bat egiten ez badute.


Samaniegon, berriz, ezustekoa eman du EH Bilduk, garaipena lortuta. Lehen indarra izan da lau zinegotzirekin, EAJk baino bat gehiago, eta alkatezako eskuratuko du berriro. Azken lau urteotan EH Bilduren esku egon da aginte makila, nahiz eta ez zen izan boto gehien lortu zuen zerrenda 2019an. Orduko hartan, PSE-EEK hautsi egin zuen EAJrekin zuen ituna, eta EH Bilduko hautagaia babestu zuen. Bigarren agintaldia izango du, beraz, EH Bildukoak.

EH Bilduk ez du hautagairik aurkeztu Mañuetan, Elvillarren, Kripanen, Lezan, Navaridasen eta Ekoran, baina bai Moredan, Lantziegon eta Eltziegion, lehen aldiz gainera. Moredan, bigarren indarra izan da, PSEren aurretik, eta Lantziegon, Gorka Mauleon ardogieak 51 boto eskuratu ditu, eta hirugarren indarra da PPren aurretik, eserleku batekin.

PP nagusi, baina ezin eutsi

Guardian, PP lehen indarra da lau zinegotzirekin, baina EAJk (3) eta EH Bilduk (2) gobernu osatzeko gehiengo lor dezakete berriz ere. EAJk eskuratu zuen alkatezako 2019an, eta ikusi beharko da oraingoan ere bi alderdiek euren botoak batzen dituzten PPri alkatezako kantzeko.

Bastidan duela lau urteko emaitzak errepikatu dira, eserlekuak dagokienez. PPK lortu du boto gehien, eta horrek lau zinegotzi eman dizkio. Hortaz, EAJk eta EH Bilduk berriro bat eginez gero, jeltzaleentzat izan daiteke aginte makila atzera.



Laura Perez (EA) eta Silvano Garcia (EH Bildu), 2019an, Bastidako alkatearen inbestidura sailoaren ostean. BERRIA



«Jeltzaleen kudeaketa kaskarra izan da; alderdia lehenetsi dute»

Jose Manuel Villanueva
Oiongo alkategaia
(EHBildu)

E.B.

Garaipen historikoa lortu du EH Bilduk Oionen, bost zinegotzi erdietsi ditu, gehiengo osotik eserleku batera. EAJk hiru zinegotzi lortu ditu; PPK, bi, eta PSEk, bakarra. EAJri alkatezako kantzeko eskura du Jose Manuel Villanueva zerrendaburuak (1966, Cadiz, Espainia). «Amets» bat beteko duela esan du: «Oiongo lehen alkate euskalduna izango naiz».

Inoizko emaitzarik onenak erdietsi dituzue. Lehen indarra, bost zinegotzi. Pozik?

Oraindik hegan egiten ari gara, hodeien gainean hegan, izugarria izan baita garaipena. Herriak argi eta garbi hitz egin du.

504 boto lortu dituzue. Espero zenituzten?

Ez. Aitortu behar dut ez genuela

horrelakorik inondik inora espero. Duela hiru egun porra bat egin genuen, eta nik apustu egin nuen 505 boto aterako genituela. Akaso, nahia edo beharra genuen, amets egin nahi genuen... ez dakit. Eta begira! Oso pozik gaude.

Duela lau urte bi zinegotzi lortu zenituzten, eta orain bost. Botoen %22,13 eskuratu zenituzten orduan, eta igandeko bozetan, %34,78. Zer dago igoera handi horren atzean?

Hamabi urte daramatzat oposizioan, eta beti ongi jantzita joan naiz osoko bilkuretar. Eta ez naiz arropaz ari: gai guztiak ongi presatuta eraman ditut, gaiak ikasita, seriotasunarekin jardun dut. Eta uste dut herritarrek hori aintzat hartu dutela. Eta, gainera, EAJren kudeaketa oso kaskarra izan da, Oso gaizki aritu da. Jeltzaleek lanaren erdia egin digute.

EAJ egon da orain arte gobernuan. Zer egin dute gaizki, zure ustez?

Gure ustez, auzokideek udal politikaren erdian egon behar dute, horrela ulertzen dugulako udal politika. Alderdiaren siglak alde batera utzi eta herritarren interesen alde lan egin behar dela sinetsita gaude, baina EAJk ez du modu horretan jardun. Jeltzaleek alderdia jarri dute herritarren gainetik. EH Bilduk arlo sozialarekin lotutako mozio ugari aurkeztu ditu azken lau urteetan, baina EAJk horien aurkako botoa eman du beti. Zergatik? EH Bilduk aurkeztzen zituelako; hori izan da aurka egiteko arrazoi bakarra. Herritarrentzat onuragarria izan da ere, aurka egin du. Jarrera horrek ondorio kaltegarriak izan ditu jeltzaleentzat. EAJk porrotaren inguruko hausnarketa egin beharko du.

Logroñorekin (Espainia) mugakide da Oion, eta han PP izan da nagusi. Zortzi kilometro eskasean, zeharo ezberdinak diren bi joera politikok lortu dute garaipena. Zer balorazio egiten duzu horretaz?

Oion Euskal Herria da, eta Logroño, Espainia. Hor dago aldea. EAJk, PSEk eta PPK sei zinegotzi dituzte guztira. Ziurtzat jotzen duzu ekainaren 17an aginte makila eskuratuko duzula?

Dena gerta daiteke politikan. Hala ere, ni EAJkoa, PPKoa edota PSE-EEkoa izango banintz eta tentazio hori izango banu, birritan penitentsatuko nuke. Oiongo herriak hitz egin du, eta argi eta garbi esan du zer nahi duen datozen lau urteetarako. Zaila ikusten dut hiru alderdiek bat egitea EH Bilduri alkatezako kantzeko. Nekez ikusten dut PSE-EEK eta PPK bat egiten. Halakorik egiten badute, hala ere, kontuan izan beharko dute 11 zinegotzietatik EH Bilduren bostak kontra izango dituztela beti.

Alkate bazara, marra gorriren bat izango duzu akordioak lortzeko orduan?

Gure gobernantza eredia irekia izango da. Alderdi guztiak entzuan nahi ditugu, eta guztiekin egin nahi ditugu akordioak. Horrela ulertzen dugu udal politika; ezin da bestela izan. Oposizioan egon garen hamabi urte hauetan, udal gobernuak baztertu egin gaitu, baina guk ez dugu gauza bera egin nahi. Ez dugu eredu hori nahi herri honentzat. EAJk, PSEk edo PPK herriarentzat onak diren proposamenak egiten badituzte, guk babestu egingo ditugu, arazorik gabe. Guk ez diogu inori babes hesirik jarriko.